

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

PRUEBA COMÚN

PRUEBA 2021



EUSKARA

PRUEBA

SOLUCIONARIO





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

Zer ikusi, hura ikasi

Etorkizuneko ofiziorik gehienak diseinatzeke dauden honetan, bada lanbide bat haur eta nerabeen arreta erabat bereganatu duena: youtuberra. Geroa bezain ezezaguna izaki gehientzat. Gutxiengo baten ogibide baino ez da. Hala ere, gero eta gehiagok aipatzen dute bizibide desiragarri gisa.



Gazteen euskal behatokiak kaleratutako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen aisialdirako jarduera gustukoena dira musika entzutea, klean egotea eta ikus-entzunezkoen kontsumoa. Gainera, diagnostiko berean, honako datu hau ere irakur daiteke: Whatsapp, Facebook, Instagram eta Youtube dira gehien erabiltzen diren sareak (bideo plataformaren erabiltzaile dira gazteen %70,6 eta eguneroko erabiltzaile aktibo hamarretik lau).

Youtube da, egunero, 30 milioi erabiltzaile aktibo baino gehiago biltzen dituen sarea. 24 ordutan, 5.000 milioi bideo ikusten dira bertan, edo milioi bat eduki ordu (Netflix eta Facebook sareetako bideo kontsumoa batuta baino gehiago). Datu-basearen handitze erritmoa ikaragarria da: minutuero 300 ordu bideo argitaratzen dira. Alimaleko eskaintza. Gaurko haur eta nerabeak sakelakoaren garaian hazi eta hezi dira. Aro digitaleko espezie horiek ez dute oroitzen analogikorik, eta hamar urte ingururekin hasten dira sare sozialetan ekinean. Horiek dira duela 13 urte sortutako bideo plataformako youtuber izan nahi dutenak, youtuberrak beraien erreferente gisa dituztenak. Komunikabideetan, youtuber hitzaren ondotik agertu ohi da polemika gehienetan, eta hiztegietan ez da oraindik kontzeptua gehitu. Gainontzeko belaunaldiontzat, oro har, fenomeno nahiko ezezaguna da.

Gazteak youtuberrekin identifikatzen dira beraien antzekoak direlako, klean gurutza ditzaketelako, parekoak zaizkielako; finean, edozeinek eskura dezakeen ospea lortu dutelako. Influencer sozial horien existentziaz ezertxo ere ez dakigula harrapa gaitzake, beraz, edozein kaletan youtuber bat ezagutzean sor daitekeen iskanbilak. Entretenimendua da nagusi, eta dibertigarriak diren kalitatezko bideoak dira ikustaldirik gehien pilatzen dituztenak. Haur eta nerabeek lagunekin hitz egiten dute ikusten dituzten bideoen inguruan, beste jarraitzaile batzuekin batera txatak sortzen dituzte, fan profilak jarraitzen dituzte, youtuber gogokoenei mezuak igortzen dizkiete, eta fan meeting-etara joaten dira. Bizitzaren parte eta zati garrantzitsu da Youtube, identitate-erakuntzan eta



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

portaeran eragiten duen fenomenoak: hizketa gaiak, kezka, estetika, hizkuntza... badira imitatzen zenbait helduleku.

Ukaezina da youtuberren fenomenoak ondorio sozial eta kulturalak dakartzala, hortaz, alfabetatze mediatiko-teknologikoan murgiltzea dagokigu denoi —haur, nerabe, horien guraso, irakasle eta beste. Eztabaidari behar bezala heltzeko territoria esploratu eta ezagutzea izan ohi da lehenbiziko urratsa. Agian, youtuber eskola bat sortu behar genuke. Bitartean, ikusi eta ikasi.

Lanbidez, youtuber



LIBE MIMENZA CASTILLO. EHUKO IRAKASLEA 2020ko urriak 14

<https://www.berria.eus/paperekoa/1870/029/002/2018-05-27/zer-ikusi-hura-ikasi.htm>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

GALDERAK

1. Deskribatu testuaren egoera komunikatiboaren ezaugarriak (igorlea, hartzailea, testu-tipoa, testu-generoa, erabilera-eremua, helburua...) eta arrazoitu erantzuna. (1.5 puntu)
2. Zein da testuaren ideia nagusia? (1 puntu)
3. Zer testu mota da eta zergatik? Arrazoitu zure erantzuna (1 puntu)
 - Argudio testua
 - Azalpen testua
 - Narrazio testua
 - Jarraibidezko testua
4. Azaldu zure hitzekin testuaren titulua: “**Zer ikusi, hura ikasi**” (1 puntu)
5. Zer helburu du idazleak? (0,5 puntu)
 - a) Azaltzea Youtube plataforma
 - b) Deskribatzea zer-nolako eragina duen Internetak
 - c) Youtuberren fenomenoaren ezagutarazteko gogoia piztea.
 - d) Sare sozialen kaltea erakustea
6. Testuak, bost paragrafo ditu. Laburbildu paragrafo bakoitzaren ideia nagusia (0.50 x 5 = 2,5 puntu)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

7. Eman testuko hitz hauen **sinonimoak edo baliokideak**, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (1 puntu)

Ogibide (1.parrafoa)
Sakela (3.parrafoa)
Komunikabideetan (3. Parrafoa)
Antzekoak(4. parrafoa)

8. Testuko esaldi hauen esanahia azaldu zure hitzak erabiliz (0.5 x 3 = 1.5 puntu)
- Etorkizuneko ofiziorik gehienak diseinatzeke dauden honetan
 - Gaurko haur eta nerabeak sakelakoan garaian hazi eta hezi dira
 - Gazteak youtuberrekin identifikatzen dira beraien antzekoak direlako



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021-eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

EBAZPENA EUSKARA

(2021)

Zer ikusi, hura ikasi

Etorkizuneko ofiziorik gehienak diseinatzeke dauden honetan, bada lanbide bat haur eta nerabeen arreta erabat bereganatu duena: youtuberra. Geroa bezain ezezaguna izaki gehientzat. Gutxiengo baten ogibide baino ez da. Hala ere, gero eta gehiagok aipatzen dute bizibide desiragarri gisa.



Gazteen euskal behatokiak kaleratutako datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen aisialdirako jarduera gustukoenak dira musika entzutea, kalean egotea eta ikus-entzunezkoen kontsumoa. Gainera, diagnostiko berean, honako datu hau ere irakur daiteke: Whatsapp, Facebook, Instagram eta Youtube dira gehien erabiltzen diren sareak (bideo plataformaren erabiltzaile dira gazteen %70,6 eta eguneroko erabiltzaile aktibo hamarretik lau).

Youtube da, egunero, 30 milioi erabiltzaile aktibo baino gehiago biltzen dituen sarea. 24 ordutan, 5.000 milioi bideo ikusten dira bertan, edo milioi bat eduki ordu (Netflix eta Facebook sareetako bideo kontsumoa batuta baino gehiago). Datu-basearen handitze erritmoa ikaragarria da: minutuero 300 ordu bideo argitaratzen dira. Alimaleko eskaintza. Gaurko haur eta nerabeak sakelakoen garaian hazi eta hezi dira. Aro digitaleko espezie horiek ez dute orotzapen analogikorik, eta hamar urte ingururekin hasten dira sare sozialetan ekinean. Horiek dira duela 13 urte sortutako bideo plataformako youtuber izan nahi dutenak, youtuberrak beraien erreferente gisa dituztenak. Komunikabideetan, *youtuber* hitzaren ondotik agertu ohi da polemika gehienetan, eta hiztegietan ez da oraindik kontzeptua gehitu. Gainontzeko belaunaldiontzat, oro har, fenomeno nahiko ezezaguna da.

Gazteak youtuberrekin identifikatzen dira beraien antzekoak direlako, kalean gurutza ditzaketelako, parekoak zaizkielako; finean, edozeinek eskura dezakeen ospea lortu dutelako. *Influencer* sozial horien existentziaz ezertxo ere ez dakigula harrapa gaitzake, beraz, edozein kaletan youtuber bat ezagutzean sor daitekeen iskanbilak.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021-eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

Entretanimendua da nagusi, eta dibertigarriak diren kalitatezko bideoak dira ikustaldirik gehien pilatzen dituztenak. Haur eta nerabeek lagunekin hitz egiten dute ikusten dituzten bideoen inguruan, beste jarraitzaile batzuekin batera txatak sortzen dituzte, fan profilak jarraitzen dituzte, youtuber gogokoenei mezuak igortzen dizkiete, eta *fan meeting*-etara joaten dira. Bizitzaren parte eta zati garrantzitsu da Youtube, identitate-eraikuntzan eta portaeran eragiten duen fenomenoak: hizketa gaiak, kezkak, estetika, hizkuntza... badira imitatzeko zenbait helduleku.

Ukaezina da youtuberren fenomenoak ondorio sozial eta kulturalak dakartzala, hortaz, alfabetatze mediatiko-teknologikoan murgiltzea dagokigu denoi —haur, nerabe, horien guraso, irakasle eta beste. Eztabaidari behar bezala heltzeko territoria esploratu eta ezagutzea izan ohi da lehenbiziko urratsa. Agian, youtuber eskola bat sortu behar genuke. Bitartean, ikusi eta ikasi.

Lanbidez, youtuber



LIBE MIMENZA CASTILLO. EHUKO IRAKASLEA 2020ko urriak 14

<https://www.berria.eus/paperekoa/1870/029/002/2018-05-27/zer-ikusi-hura-ikasi.htm>

1. Deskribatu testuaren egoera komunikatiboaren ezaugarriak (igorlea, hartzailea, testu-tipoa, testu-generoa, erabilera-eremua, helburua...) eta arrazoitu erantzuna. (1.5 puntu)

Euskal egunkari batean, Berrian, argitaratutako testua da, bukaeran aipatzen den bezala. Beraz, erabilera-eremuari dagokionez, hedabideak edo gizarte komunikabideetako da, prentsa idatziari lotua. Testu tipoari dagokionez, argudio testua da.

Testua, bestalde, Interneten argitaratua dago, bukaerako irudi eta ikurrek adierazten duten bezala (informazioa konpartitzeko Google, Facebook, Twittererako estekak ditu). Igorlea Libe Mimenza da eta puri-purian dagoen gizarte gai bat ekartzen digu, Youtuberrak. Hartzaileari dagokionez, publiko zabalari idatzitako testua da. Artikulu baten bidez protagonisten iritziak jasotzen dituen argudio testua dugu hau.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021-eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

2. Zein da testuaren ideia nagusia? (1 puntu)

Youtuber fenomenoak garrantzi handia du haur eta gazteen bizitzan; besteok ere zer den ikasi beharko genuke.

3. Zer testu mota da eta zergatik? Arrazoitu zure erantzuna (1 puntu)

- **Argudio testua**
- Azalpen testua
- Narrazio testua
- Jarraibidezko testua
-

Argudio testua. Tesiaren aldeko argudioak ematen ditu. Horrez gain, aholkuak ematen ditu irakurlearengan eragiteko.

4. Azaldu zure hitzekin testuaren titulua: “**Zer ikusi, hura ikasi**” (1 puntu)

Gazteek haurtzarotik ikusi dutena ikasi dute, helduok ere inguruan ikusten duguna zer den ikasi behar dugu.

5. Zer helburu du idazleak? (0,5 puntu)

- A. Azaltzea Youtube plataforma
- B. Deskribatzea zer-nolako eragina duen Internetak
- C. Youtuberren fenomenoaren ezagutarazteko gogoia piztea.**
- D. Sare sozialen kaltea erakustea



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021-eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

6. Testuak, bost paragrafo ditu. Laburbildu paragrafo bakoitzaren ideia nagusia (0.50x5 2,5 puntu)

1.- **Youtuber gustuko lanbidea bihurtzen ari da gazteentzat, beste gehientzat ezezaguna den bitartean.**

2.- **Youtube da gazteen artean gehien erabiltzen den sareetako bat.**

3.- **Aro digitaleko haur eta nerabeak dira youtuber izan nahi dutenak, aurreko belaunaldientzat, berriz, kontzeptu ezezaguna da.**

4.- **Gazteak youtuberrekin identifikatzen dira eta hauen bideoak garrantzitsuak dira beren bizitzetan.**

5.- **Youtuberrak fenomeno sozial eta kulturala bihurtu dira, horregatik denok ezagutu beharko genuke eremu hori.**

7. Eman testuko hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (1 puntu)

Testuko hitza	Sinonimoa edo baliokidea
Ogibide (1.parrafoa)	lanbide, bizibide...
Sakela (3.parrafoa)	Mugikorra, esku-telefonoa...
Komunikabideetan (3. Parrafoa)	hedabideetan



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2021-eko MAIATZA

EUSKARA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES

DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2021

EUSKARA

Antzekoak(4. parrafoa)

Modukoak, erakoak

8. Testuko esaldi hauen esanahia azaldu zure hitzak erabiliz (0.5x3: 1.5 puntu)

- Etorkizuneko ofiziorik gehienak diseinatzeke dauden honetan
- Gaurko haur eta nerabeak sakelakoen garaian hazi eta hezi dira
- Gazteak youtuberrekin identifikatzen dira beraien antzekoak direlako

-Une honetan inork ez ditu ezagutzen etorkizunean izango diren lanbideak.

-Gaur egungo haur eta nerabeek garai digitalean bizi izan dira beti.

-Gazteek youtuberrak bere modukoak ikusten dituzte.